

ERASMUS PROGRAMA+ IkaslePraktikak 2018/19 Deialdia

PRAKTIKALDIAREN FINANTZAKETA ETA IRAUPENA

Finantzaketa

Urtero, Hezkuntza Nazioartekotzeko Espainiako Zerbitzuak (SEPIE) finantzatu beharreko plaza eta hilabete kopurua kalkulatu du, kontuan hartuz kasuan kasuko erakundeek (Europar Batasuna, Unibertsitateen Kontseilua-SEPIE eta elkartutako Unibertsitateak) onartuko duten kontratu instituzionala, eta adieraziko du zein den Erasmus+ bekadunek 2018-2019 ikasturterako jasoko duten laguntzen behin betiko zenbatekoa.

Laguntza horien helburua ez da, inolaz ere, atzerriko praktikaldian sortutako gastu osoak estaltzeko adina diru ematea. Helburua da, ERASMUS+ programan parte hartzeak eragindako gastu gehigarrietan laguntzea, eta laguntza horiek aldatu egingo dira xede herrialdearen arabera, ondoren adierazita dagoen bezala:

1. Taldea – 400 €/hileko Goi bizi maila duten herrialdeak programan	Danimarka, Finlandia, Islandia, Irlanda, Luxemburgo, Suedia, Erresuma Batua, Liechtenstein, Norvegia
2. Taldea – 350€ /hileko Bizi maila ertaineko herrialdeak programan	Austria, Belgika, Alemania, Frantzia, Italia, Grezia, Espainia, Txipre, Herbehereak, Malta, Portugal
3. Taldea – 300 €/hileko Bizi maila baxuko herrialdeak programan	Bulgaria, Kroazia, Txekiar Errepublika, Estonia, Letonia, Lituania, Hungaria, Polonia, Errumania, Eslovakia, Eslovenia, Mazedoniako Jugoslaviar Errepublika Ohia, eta Turkia

Lehen aipatutako diru-laguntzak eskatzeaz gain, kaltetutako ingurunean dauden ikasleek laguntza gehigarria eska dezakete. Horretarako komunikatu eta egoera horretan daudela ziurtatu behar dute dokumentu egiaztatzailea aurkeztuz.

Egoera hauetan dauden ikasleak kaltetutako ingurunean dagoen ikasle bezela ulertzen da:

- Hezkuntza Ministerioko edo Eusko Jaularitzako Hezkuntza Saila, Hizkuntz Politika edo Kultura unibertsitate mailako eta goi-mailako beste ikasketak batzuk (ikasleek orokorrak) egiteko onuraduna izatea, edo egingo den mugikortasun ikasturteko aurreko ikasturtean Eusko Jaularitzako Hezkuntza Saila, Hizkuntz Politika edo Kultura



unibertsitatez kanpoko ikasleak eskolarizatzeko ikasketa-beketerako eta laguntzak onuraduna izatea.

- b) Errefuxiatua izatea edo bigarren babesako eskubidea izatea edo Espainian eskaera aurkeztea nazioarteko babesaren eskatzailea izateko.

Halaber, laguntza osagarriak egon litezke, beste organismo eta erakundeek eskainitakoak, Erasmus+ ikasle baldintzak betetzen dituenarentzat. Laguntza horien baldintza, betebeharrak eta zenbatekoak zehaztuko dira 2018-2019 ikasturterako onetsitako hitzarmenen eta hartutako erabakien arabera.

Egonaldiaren iraupena

Ikasleak egonaldia has dezake bere eskaera onartzen (diru-laguntza hitzarmenaren firma) den unean, eta 2019ko abuztuaren 31 baino lehenago amaitu beharko du.

Praktikak egiteko egonaldiaren iraupena 2 hilabetetik 12 hilabetera izango da. Nolanahi ere, 3 hilabete finantzatu dira gehienez.

Ikasle batek berak, guztira, ikasketa zikloko 12 hilabete eman ditzake mugikortasun aldietan, alde batera utzirik zein den mugikortasun jardueren kopurua eta izaera (ikasketak edo/eta praktikak).

LAGUNTZEN IZAPIDEAK ETA EBAZPENA

Laguntzen izapideak eta ebazpena gauzatu da Beka Erasmus + IkaslePraktikak programaren deialdiko oinarrien arabera, <http://www.ehu.eus/eu/web/enplegua> web orrialdean argitaratu direnak.

Esleipendun pertsonak, xede erakunde edo eta enpresak eta programa erakundeak hainbat tramite bete beharko dituzte praktikak egin aurretik, egin bitartean eta ondoren. Segidan adierazita daude:

Egonaldiaren aurretik:

- Erasmus + IkaslePraktikak beka eskaerak egiten dituztenek eta deialdiak ezarritako oinarriak betetzen dituztenek, "Erasmus+ IkaslePraktikak" deialdian parte hartzeko ESKAERA EGITEN DUTE erregistro bidez edo bide telematikoz.
- Eskaera orria eta beste dokumentu (N.A.N., Matrikularen ordezkagiriaren kopia edo ziurtagiri bat master edo doktorego programa batean onartuak izan zaretela egiaztatzeko) gehigarriez gain, "Learning Agreement" ("Ikasketen Balioa Onartzeko Aurretiko Konpromisoa") aurkeztu beharko dute derrigorrean, behar bezala beteta norberaren datuekin, xede erakunde edo eta enpresaren datuekin eta gauzatu behar diren praktiken ezaugarriekin. Behar-beharrezkoa da xede erakundeak edo eta enpresak aipatu dokumentua sinatu eta zigilua jartzea, eskaera onartua izan dadin.

“Learning Agreement” dokumentuan, harrera erakundeak edo eta enpresak zehaztu beharko ditu praktikaren ezaugarri eta baldintzen xehetasunak: programa zehatza, garatu beharreko gaitasunak, jarraipen plana, ordutegia, iraupena, etab.

Ez dituzte bete beharko igortze Erakundearen, kasuan UPV/EHUren, gaineko datuak.

Praktikak egingo dituen hizkuntzan maila nahikoa izan beharko du eskaera egiten duenak. Harrera erakunde edo enpresak aukera izango du eskatu nahi duen hizkuntza ezagutza maila zehazteko, eta nahi izanez gero, maila horri dagokion agiria eskatzeko. Agiri hori egiteko erabiliko da Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratua (HEEEB), hizkuntz ziurtagiri espezifiko bat eskatzen duten unibertsitateen edo enpresen kasuan izan ezik: TOEFL, IELTS... Azken kasu horretan, ez da inolako korrespondentziarik aplikatuko, eta ikasleak dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko du, ziurtagiri hori emateko ahalmena duen organismoak jaulkia.

- Eskaera osatugabea edo akastuna balitz, eskaera egin duen pertsonari eskatuko zaio akatsa zuzentzeko, deialdiaren oinarrietan jartzen duenaren arabera.
- Aurkeztu den dokumentazioa deialdi honek ezartzen dituen baldintza guztietara egokitzen dela egiaztatu ondoren, oniritzia edo praktikaren balidazioa eskatu beharko zaio eskaera egin duen ikaslea matrikulatuta dagoen Unibertsitate Ikastegiari, horrela bermatzeko praktika horiek betetzen dituztela erakunde edo enpresetan praktikak burutzeko baldintzak (UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzeko Arautegia eta Ikastegiak berak ezartzen duena), prestakuntza izaera duela eta ikasleek egingo dituzten praktikek lotura zuzena izango dutela matrikulatuta dauden ikasketekin.

Oniritziarekin batera izenpetu beharko dute Unibertsitateko Ikastegiko tutore bat. Tutore hori arduratuko da praktiken tutoretzaz eta praktiken jarraipena egingo du horien iraupen osoan zehar (UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzeko Arautegia).

Ikastegiak, praktikaren onespenerari dagokionez, kontrako ebazpena emango balu, ebazpen hori behar bezala arrazoitu beharko du.

- Oniritzia lortuz gero, programaren erakundeak jarraituko du espedientearen tramitazio lanekin, Learning Agreement inprimakia beteko du UPV/EHUri, igorle erakundeari, dagozkion datuekin, eta eskaera egiten duen pertsona matrikulatuta dagoen ikastegiko sinadura eta zigiluarekin. Aitzitik, eta Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko erretoreordeak aurrez horrela adierazi badu, eskaera atzera botako da, praktikak ez baditu betetzen deialdiak ezartzen dituen baldintzak.
- Behin Learning Agreement dokumentua eginda, programako erakundeak jakinaraziko dio eskaera egin duen pertsonari bekaren esleipena eta dokumentu hauek (T.S.E., bankuko kontu baten ziurtagiria eta aseguru medikoa) eskatuko zaie. Dokumentazio hau ondo dagoela begiratu ondoren "Diru-laguntza Hitzarmena" bidaliko zaie. Dokumentu hori irakurri, bete eta sinatu beharko da.
- Eskaera egin duen pertsonak, batetik, eskuratu beharko du Gizarte Segurantzaren Europako Osasun Txartela (T.S.E.) eta, bestetik, egin beharko du praktikaren hasiera baino lehen, istripuetarako eta aberriratzeko mediku aseguru gehigarri bat, aurreikusitako egonaldi osoan gerta litezkeen gorabeherak estaltzeko (UPV/EHUk

aukeran bere ikasleei eskaintzen die aseguru bat <https://www.ehu.eus/eu/web/kontratazioa/borondatezko-asegurua> dituen estaldurentzat kontratatu den polizak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituen).

- Diru-laguntza Hitzarmena behar bezala beteta eta sinatuta aurkeztu beharko da gehienez 10 eguneko epean, UPV/EHUko Erregistro Orokorren bitartez, gaia "Erasmus Bekak + IkaslePraktikak" jarriz, edo bide telematikoa erabiliko da (ahal izanez gero) T.S.E.-ren kopia batekin eta seguruaren ordezkagiriarekin. Aurkeztutako dokumentazioa osatugabea edo akastuna balitz, eskaera egin duen pertsonari eskatuko zaio okerrak zuzentzeko deialdiaren oinarriak ezartzen dituen baldintzei jarraituz.
- Plaza eman ondoren, pertsona onuradunek e-mail bat jasoko dute Online Linguistic Support aplikaziotik (OLS) eta bertan jarraibideak emango zaizkie hizkuntza gaitasunen inguruko ebaluazio bat bete dezaten online, mugikortasun epealdia hasi baino lehen eta ondoren, betiere lan hizkuntza nagusia OLS aplikazioak <http://erasmusplusols.eu/eu/> ezartzen duen hizkuntza bada; edo helburuko unibertsitatearekin horrela adosten denetan, hizkuntza horren jatorrizko hiztuna denean izan ezik.

Laguntza ekonomikoaren ordainketa derrigorrezko bi ebaluazio proba online egitearen menpe egongo da. Hizkuntzaren derrigorrezko lehenengo ebaluazio proba egiten ez bada, ezingo da mugikortasun programan parte hartu eta ikasleari baja emango zaio Erasmus+ programatik. Bigarren ebaluazio proba egiten ez bada beka itzuli beharko da.

Egonaldia bitartean:

- Behin praktikak hasita, harrera erakunde edo enpresak bete beharko du "Certificate of arrival" (Egonaldiaren hasierako ziurtagiria), eta ziurtagiri hori posta elektronikoz bidali beharko zaio, batetik, onuradun pertsona matrikulatua dagoen ikastegiko praktika arduradunari, eta bestetik, Erasmus+ IkaslePraktikak programako erakundeari, eta horrela azken honek laguntza ekonomikoaren ordainketa gauzatuko du.
- Diru-laguntzen abonua egingo da ordainketa bakar batean, banku transferentzia bidez ikasleak emandako kontu korrontera. Kontu horrek erabilgarri egon beharko du diru laguntza jaso bitarteko epealdi osoan zehar.

Ikasleak enpresan probaldi bat egin beharko balu onartua izan aurretik eta azkenean enpresak ez balu bere eskaera onartuko, ikasleari ez zaio diru-laguntzarik emango egindako desplazamenduagatik.

Egonaldi murrizketak emango dira soilik ezinbesteko arrazoiak medio. Nolanahi ere, egonaldian ez igarotako epealdiko dirua itzuli beharko zaio UPV/EHUri, kasuan zehaztutako era eta zenbatekoan.

- *Egonaldia gauzatu bitartean, ikasle bakoitzak ondorengo egin beharko du:*
 - Harrera enpresan edo erakundearen igaro beharko du prestakuntza akordioan zehaztutako denbora guztia.
 - Xede herrialdeko arau, usadio eta ohiturak errespetatu beharko ditu. Aipatutakoak bete ezean, ikaslea bera izango da bere egintzen erantzule.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

bakarra, eta, behar izanez gero, agintari eskudunen aurrean erantzun beharko du.

Itzuli ondorengo tramiteak

- Dokumentu hauek aurkeztu beharko dira, egonalditik itzuli ondorengo 15 eguneko epean, eta, edozein kasutan, 2019ko irailaren 30a baino lehen harrera erakundeak edo harrera enpresak sinatu eta zigilatu beharko du "Certificate of Attendance" (Egonaldi Amaierako Ziurtagiria) eta ebaluazio txostena (After Mobility). Bi dokumentuak posta elektronikoz bidali beharko zaizkio, batetik, pertsona onuraduna matrikulatuta dagoen ikastegiko praktiken arduradunari; eta bestetik, Erasmus+ IkaslePraktikak programa erakundeari.
- Ikasleak txosten bat idatziko du bizitako egonaldiari buruz eta Erasmus+ Agentziak emandako ebaluazio inprimakia (Mobility Tool inkesta) beteko du.
- UPV/EHUk erabateko aitorpena eman beharko dio harrera herrialdeko erakundearen egin den praktikaldiari. Eta soilik bi kasu hauetan uko egin ahal izango dio aitortzeari: ikaslea harrera erakundeak ezarri duen mailara iritsi ez denean, edo aitorpenari dagokionez adostu diren baldintzak bete ez direnean.

Aitorpena Tituluaren Gehigarri Europarrean jasoko da (BOE 2015/02/07) edo, hori ezinezkoa balitz, ziurtagiri akademiko ofizialean, eta ECTS kreditutan edo parekidetan egingo da beti.

Lehenago aipatutako betebeharretakoren bat, edozein delarik, bete ezean, ikasle onuradunak jasotako laguntzari dagokion diru kopuru osoa itzuli beharko du, salbu eta errektoreak berariazko erabaki bidez kontrakoa adierazi.

Onartutako behari esker diru kopuru jakin bat jasoko du onuradunak, baina horretarako ikasleak lortu nahi diren helburuetara egokitu behar du, beka helburu horietan oinarrituta ematen baita. Horrenbestez, diru kopuruak aurreikusitako jarduera guztiz gauzatzearekin lotuta daudenez, Erasmus+ Programari jarraituta egindako ikasketen aitorpena jasoko da, baldin eta ikasle onuradunek aurreikusitako obligazio guztiak betetzen badituzte.

Dokumentazioa

Beharrezko dokumentuak webgune honetan lor ditzakezu:
<http://www.ehu.es/eu/web/enplegua>.

PRAKTIKETARAKO ENPRESA HAUTAGARRIAK

Sektore publikoan edo pribatuan jarduera ekonomikoa duen edozein erakunde har daiteke enpresatzat, alde batera utzita haren tamaina, araubide juridiko edo zein ekonomi sektoretan diharduen.

Ondorengo erakunde hauek ez dira hartuko harrera erakunde hautagarritzat:



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

- ✓ Europako erakundeak.
- ✓ Hizkuntza akademiak.
- ✓ Europar Batasuneko programak kudeatzeaz arduratzen diren erakundeak.
- ✓ Harrera herrialdean ikasleak duen nazioko ordezkari-tza diplomatikoa.
- ✓ Modu ez-presentzian haien jardura egiten duten enpresak.

Ondorengo hauek har daitezke harrera erakunde hautagarritzat:

- Lan merkatuan edo hezkuntza, prestakuntza eta gazteria esparruetan jardun aktiboan diharduen edozein erakunde publiko edo pribatu. Esaterako, erakunde hauek izan litezke:
 - Enpresa publiko edo pribatu bat, txikia, ertaina edo handia (enpresa sozialak barne).
 - Herri, eskualde edo nazioarteko erakunde publiko bat.
 - Solaskide sozial bat edo lan munduko beste ordezkari bat: merkataritza ganberak, artisau elkarteak edo elkarte profesionalak eta sindikatuak, besteak beste.
 - Ikerketa institutu bat.
 - Fundazio bat.
 - Eskola, Institutu edo Hezkuntza zentro bat (edozein mailakoa, aurre eskolatik bigarren hezkuntzara, baita lanbide heziketa eta helduen hezkuntza);
 - Irabazi-asmorik gabeko erakunde, elkarte edo eta ONG bat.
 - Aholkularitza akademikoa, orientazio profesionala eta informazio zerbitzuak ematen dituen erakunde bat.
 - Goi Hezkuntzako Erasmus Gutuna (ECHE) izeneko programa titularraren herrialdeko Goi Hezkuntzako Erakunde bat (HEI).